



SFX IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

Zure seme edo alaba SFX ikastetxean eskolatzean (gurasoak), lanera etortzean (irakasle, langile, bolondres), ikastera etortzean (ikasleak), momentu horretatik aurrera kolegioko hezkuntza komunitatearen parte zarete.

Ongi etorri! Komunitate honi lotuz, SFX ikastetxearen hezkuntza proiektua onartzen duzu, proiektu bizia, ez geldia, zeintan lehen baldintza, bakoitza ongi hartua eta onartua senti dadin izanen den. Ikastetxeko proiektua ezagutarazi aitzin, hemen Ebangelioa eta Kristok norbanakoarengan duen begirada oinarri dituen oinarrizko balio batzuk topatuko dituzu. Balore hauek baitaezpadakoak dira SFX ikastetxean emanen den ibilbide orotan.

ONGINAHIA: konfiantzazko begirada bat, itxaropenezkoa, bestearengana eta norberarengana.

ESKAKIZUNA: norberak duen onena ematen saiatzea garapen aktibozko logika batean.

ARDURA: autonomiaranzko eta ko-heziketaranzko garapen helburu komun bat.

LANKIDETZA: konfiantza lasaiko ingurune batean indarrak batzea.

ERREALISMOA: ahal dugun ongien egin eskura ditugun baliabideak benetan argi izanez.

IZPIRITUAREN IREKITASUNA: jakinahiezko izpiritu bat gorde, irudimena bultzatu, onespentik gabe pentsatzeko aukera eman, bereizketa bultzatu eta hutsegiteei lekua utzi.

ERRESPETUA: norbanakoaren duintasuna bizi, garai errealista bat bizi eta deskonaxiorako eskubidea ez ahantzi.

SFX hezkuntza komunitatean dugun lekua dugula, badakigu gizakiez osatua dagoela honek ekartzen dituen lorpen eta akatsekin.

NORBERAREN LAGUNTZA

Hezkuntza ekintza bakoitza laguntza bat da. Ez dugu “zerbaiten “ ordez egiten. Ongi lagundurik ikasteak, ezereen aurretik, konpromesu bat eskatzen du.

NATURARA, EKOLOGIARA, EDERTASUNERA, KULTURARA ETA KIROLERA IREKITZEA.

SFXek eskaintzen duen inguru paregabeak, natura, ederra eta kultura, ikastetxeko erabiltzaileen egunerokotasunaren erdian jartzen ditu. Proposamen desberdinek urteko eskaintzan, edo gerora etorriko direnetan lekua izaten dute.

- Tailerrak eguerdiko atsedendian: natura, erlezaintza, plastika,...
- Abesbatza eta abesbatza erlijiosoa
- UNSS (kirola)
- Ateraldi hezitzaileak
- Erakusketak, hizlari artistikoak,...
- Sentsibilizazio ekologikoa: xahutzearen kontrako jantokia, bertakoen hobestea, konposta, inguru berdeak zaintzeko noizbehinkako abereak abeltzain batekin lankidetzan, erlauntza, urik gabeko pixatokiak ezartze mailakatua,...

HARREMANA ETA HIRITARTASUNA IKASTEAK

- Hezkuntza ministeritzak onartutako elkarten eskuhartzea mundu numerikoaren inguruko heziketarako bai eta sare sozialekiko sentsibilizaziorako 6. mailatik 3. mailara.
- Hezkuntza miinisteritzak onartutako elkarten eskuhartzea sexu, harreman eta afektibitate hezkuntza bat jasotzeko 6.mailatik 3.mailara.
- Ikasle bolondresentzat hizketa taldeak.
- Behar izanez gero, Elizbarrutiko zuzendaritzako psikologo batekin hizketaldiak izateko aukera gurasoen baimenarekin.
- Larderia eta jazarpenaren prebentzio eta trataeran gaitutako taldea.
- Tutorego orduak.
- Delegatuen formakuntza, Departamenduko Gazte Kontseiluan parte hartzea.

DIMENTSIO ESPIRITUALERA ETA BALIO KRISTAU ETA HUMANISTETARA IREKITZEA

- “Erljio kultura” saioak 6. mailakoen ordutegiaren barne.
- Elkartze garai garranzitsuak parropiako apaizarekin.
- Abendu eta garizuma garaiak bilakaera garai gisa (animazio eta nor bere baitan biltzeko garai bereziekin).
- Karitatezko ekintzak.
- Ekintza anitzak eta urteko gaiak
- Lekukotasunak

INGURU ERAKARGARRI BAT AHALBIDETZEA

- Hezkuntza komunitateko kide bakoitzak (buraso, hezitzaile, irakasle, langile) gazteen heziketan parte hartzen du ekintzen eta eredeugarritasunaren bidez.

KOMUNITATEAREN BARRENEAN BERE BENETAKO LEKUA AURKITZEN IKASTEA ELKARTRUKEAK ETA ELKARRIZKETAK HOBETSI

IKASLEAK HAIEN IKASKUNTZAREN ERDIAN EZARRI FAMILIEKIN ELKARLANEAN;

- Autonomia: pronote: elkarlanerako tresna; baina ez agendaren ordezkoa; , norbanakoaren tresna ardurak hartzen irakasten duena.
- “konturatzea”, zentzua eta hausnarketa ikasi: irakasleekin elkarritzeka- bilera bat seihileko bakoitzean (eta eskola kontseilu gehiagorik ez, non ikaslea, aktore nagusia falta den). Gaztea mintzatzan da, hitz ematen du eta elkarritzeka pedagogiko batez baliatzen da.
- Guraso- irakasle arteko bilerak.
- Eskola bizitza talde bat ikasleen heziketan ekintzailea (mila bakoitzeko erreferente bat)

LAN INGURUNE KOMUN ATSEGIN BATEZ GOZATU ETA GORDETZEA

- Art-deco gisako eraikin bat, etengabeko berritzean, historiaren aztarnak etorkizunerantz ibiltzeko.
- Egoera onean dagoen lanerako ingurune komun eta garbi bat mantentzen laguntzen duten ikasleak.
- Eremu orlegiak eta eskolak kanpoan eman ahal izateko eskura dauden eremuak.
- Baratze pedagogiko bat.
- Urmael pedagogiko bat
- Atsedenerako lekuak (atsedenerako gela eta bainugela nesken eskura beraien hileko garaietarako, beharren arabera, “erizaintza” eskola bizitzako bulegoan, denentzat) eta nor bere baitan biltzeko (kaperak).
- Zaila den eraikin bat desgaitasun egoeran dauden pertsonentzat egokitzeko etengabeko bilaketa.

DENERI IREKITZEA

Gazte bakoitza bakarra da eta talde baten barrenean onartutako ezaugarri bereziak ahalik eta ongien kontutan hartzen saiatzen gara, modu sinesgarrian.

HEZKUNTZA BEHAR BEREZIAK KONTUTAN HARTU.

- Irakasle- ikasketa buru bikote bat HBBen jarraipena egiteko (behar diren neurriak ezarri eta administrazio mailako txosten eta bestelakoen burutzea).
- Neurri guztien jarrapiena erakunde desberdinekin.
- Goi mailako gaitasun intelektualak dituzten ikasleen jarraipena.

IKASTEN IKASI

- Ikaskuntza metodologikoaren ibilbidea (ikasten ikasi)
- “burbuila”baliabidea: eskolan nahiz metodologian zailtasun handiak dituzten ikasleen jarraipen indartua.

LAGUNDU, SAKONDU

- Indartze garaiak proposatuak.
- “brevet”-aren ahozko atalerako laguntza (BTSko ikasleen eta irakasle- tutore baten parte- hartzea) 3. mailan.
- Hiru “brevet” 3. mailan.
- Orientaziorako laguntza.

HEDATU, MUNDURA IREKI

HIZKUNTZA MAILAKO IREKIDURA

- Ikastetxe elebiduna (euskara)
- Bidai eta ateraldi pedagogikoak proiektu pedagogikoen arabera.
- Nafarroako Gobernuarekin lankidetzeta (gure ikasgeletan murgiltze sisteman diren hegoaldeko ikasleen harrera).
- “Hizkuntza eta kultura europearra” aukeragaia (europar atala ingelesez) 4. mailatik.
- Latina, aukeragaia, 5. mailatik.
- Euskara, aukeragaia, hasiera maila, 6. mailatik

LURRALDERA IREKITZEA

- Sareko eskola eta lizeoekin harremana.
- Euskal Herriaren ezagutzea.
- Garai bereziak elkarte humanitarioekin: “ Entraide Saint Sauveur”, “Table du soir”
- Berantagokoak: gela eta proiektuen irekitzea bai hezkuntza komunitateko kideei bai eta ingurukoei ere.

